**2009ko AZAROAREN 19ko UDALBATZARRA**
PLENO DE 19 DE NOVIEMBRE DE 2009

**BERTARATUAK /** ASISTEN**:**

**ALKATEA /** ALCALDE: **JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK** / CONCEJALES**:**
**AMAYA TELLECHEA INDA, RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, HELENA SANTESTEBAN GUELBENZU, ALFREDO GOYENECHE INÉS, RAFAEL ECHEVERRIA PERURENA (2. puntuan), SANTIAGO ALZUGUREN MATXIKOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, Mª SOL MARGARITA TABERNA IRAZOQUI, JON ABRIL OLAETXEA.**

**IDAZKARIA** / SECRETARIA: **PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK /** NO ASISTEN:
Inor ez.

| | |
|---|---|
| **Tokia: BERAko Herriko Etxea.** | Lugar: Casa Consistorial de BERA. |
| **Eguna: 2009-11-19** | Día: 19-11-2009 |
| **Ordua: 20:30** | Hora: 20:30 |
| **Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia** | Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria. |

| | |
|---|---|
| **TRATATZEKO GAIAK:** | ASUNTOS A TRATAR: |
| **1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-** | 1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.- |
| **2009ko urriaren 15ean egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DA.** | Vista el acta de la sesión celebrada el día 15 de octubre de 2009, por unanimidad SE APRUEBA. |
| ***Hurrengo puntua hasi ondoren eta erabakia hartu baino lehen bertaratu da Rafael Echeverria zinegotzia.*** | *Después de iniciar el siguiente punto y antes de adoptar el acuerdo se incorpora a la sesión el concejal Rafael Echeverría.* |
| **2.- 3. POLIGONOKO 253. LUR-ZATIKO HEGOALDEKO MUGAN BORONDA-** | 2.- RATIFICACIÓN DESLINDE JUDICIAL EN JURISDICCIÓN VOLUNTARIA DEL |

**TEZKO JURISDIKZIOAN EGINIKO MUGAKETA JUDIZIALARI BERRESTEA.**

LINDERO SUR DE LA PARCELA 253 DEL POLÍGONO 3.

***Idazkariak gai honi buruz udal abokatuek eta berak eginiko txostenak irakurri ondoren, aho batez legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako erabakia hartu dute:***

*Tras la lectura por la secretaria de los informes sobre este asunto de los abogados asesores y el suyo propio, por unanimidad que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:*

**2008ko apirilaren 8an, 3. poligonoko 253. lur-zatiko mugaketa judiziala burutu zen.**

Con fecha 8 de abril de 2008 se llevó a cabo el deslinde judicial de la parcela 253 del polígono 3.

**Horretan, Berako Udalak, bere ordezkarien bitartez, zera adierazi zuen:**

En dicho deslinde, el Ayuntamiento, a través de sus representantes, manifestó lo siguiente:

***Berako Udala den mugakide aldetik, Hego-mendebaldeko mugan, 252. eta 253. lur-zati eta Legia kaleen artean, Berako Udalak Damaso jaunari errekonozitzen dio bere jabetza hurrengo hau dela: hegoaldeko fatxadatik espaloia hasi arte, ez Legia kalea hasi arte, eta 3,35 metro linealak izanik, eta Hego-ekialdeko mugan 3,26 metro linealak dira eraikiaren fatxadatik espaloia hasi arte, hori dena luzatuta ondoko eraikia, Bidaburua izena duena, arte”***

*“Respecto del colindante Ayuntamiento de Bera, lindero Sur-Oeste, entre las parcelas 252 y 253 y la Calle Leguía, el Ayuntamiento de Bera reconoce que de D. Dámaso, es propiedad del mismo, desde la fachada Sur del edificio hasta el comienzo de la acera, que no de la calle Leguía, y que son 3,35 metros lineales y en el lindero Sur-Este son 3,26 metros lineales de la fachada del edificio al comienzo de la acera, prolongándose hasta la fachada del edificio colindante llamado Bidaburua.”*

**Ikusirik, horri buruz udal abokatuek eginiko idatzia eta Idazkaritzak eginiko txostena, 2009ko azaroaren 17koak.**

Vistos informes emitidos al respecto por los abogados asesores y por Secretaría de fecha 17 de noviembre de 2009.

**Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 116.1 artikuluari jarraikiz.**

De conformidad con lo establecido en el artículo 116.1 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local.

**Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERABAKI DA:**

Con la mayoría absoluta, legalmente exigida, SE ACUERDA:

**1) 2008ko apirilaren 8an, 3. poligonoko 253. lur-zatian eginiko mugaketa judiziala, Udalari dagokiona eta lehen adierazi den moduan, berrestea.**

1) Ratificar el deslinde judicial de la parcela 253 del polígono 3 realizado el 8 de abril de 2008 en la parte correspondiente al Ayuntamiento y del modo antes expresado.

**2) Erabaki hau Lehen Auzialdiko 6. Epaitegira bidaltzea.**

2) Remitir este acuerdo al Juzgado de Primera Instancia nº 6 de Pamplona.

**3.- 239/2009 EBAZPENA, AZAROAREN 9-KOA, BERAKO ALKATEAK EMANA, DAMASO ROZAS BEOLA ETA IGUZKIMENDI ETXEKO (LEGIA KARRIKA 41) JABEKIDEAK AURKEZTUTAKO AHOZKO EPAIKETARAKO DEMANDAN -0002313/2009 PROZEDURA- DEFENDATZEKO ABOKATUAK ETA PROKURADOREA IZENDATZEN DITUENA, BERRESTEA.**

3.- RATIFICACIÓN RESOLUCIÓN 239/2009, DE 9 DE NOVIEMBRE, DEL ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE BERA, POR LA QUE SE NOMBRA ABOGADOS Y PROCURADOR PARA DEFENSA EN EL JUICIO VERBAL CUYA DEMANDA HAN PRESENTADO DAMASO ROZAS BEOLA Y LA COMUNIDAD DE PROPIETARIOS DE LA CASA IGUZKIMENDI (CALLE LEGIA 41) -Nº PROCEDIMIENTO: 0002313/2009-.

***Aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*Por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

**2009ko urriaren 26an Lehen Auzialdiko 6. Epaitegiko Idazkari Judizialak Dámaso Rozas Beola eta Iguzkimendi etxeko (Legia karrika 41) jabekideek aurkeztutako ahozko epaiketarako demandaren berri – 0002313/2009 Prozedura- eman dio Udalari, mugaketa eta mugarriztatzeari buruzkoa.**

El 26 de octubre pasado el Secretario Judicial del Juzgado de Primera Instancia Nº 6 comunicó al Ayuntamiento la presentación de la demanda de juicio verbal por Dámaso Rozas Beola y la Comunidad de Propietarios de la Casa Iguzkimendi (calle Legia 41) –Nº procedimiento: 0002313/2009-, sobre deslinde y amojonamiento.

**Hori dela eta, 239/2009 Berako Alkatearen Ebazpenaren bidez epai honetan Udalaren interesak defendatzeko behar den abokatuak eta prokuradorea premiaz izendatu zen. Ebazpen hori, orain, Udalbatzak berretsi egin behar du.**

Por Resolución 239/2009 de la Alcaldía de Bera se nombró, por urgencia, abogados y procurador en el citado juicio y, ahora, procede la ratificación por el Pleno de la citada Resolución.

**Hori dela eta, ERABAKI DA:**

Por ello, SE ACUERDA:

**1) 239/2009 Alkatetzaren ebazpena, azaroaren 9koa, Damaso Rozas Beola eta Iguzkimendi etxeko (Legia karrika 41) jabekideek aurkeztutako ahozko epaiketarako demandan -0002313/2009 prozedura- defendatzeko abokatuak JOSE IGNACIO URDANGARIN ASIAIN eta EZEQUIEL URDANGARIN AYESTARAN eta prokuradore ALFONSO MARTÍNEZ DE AYALA izendatzen dituena, berrestea.**

1) Ratificar la Resolución de Alcaldía 239/2009, de 9 de noviembre, del Alcalde del Ayuntamiento de Bera, por la que se nombra abogados a JOSE IGNACIO URDANGARIN ASIAIN y EZEQUIEL URDANGARIN AYESTARÁN y procurador ALFONSO MARTÍNEZ DE AYALA para defensa en el juicio verbal cuya demanda han presentado Dámaso Rozas Beola y la Comunidad de Propietarios de la Casa Iguzkimendi (calle Legia 41) -nº procedimiento: 0002313/2009-.

**2) Erabaki hau Lehen Auzialdiko 6. Epaitegira bidaltzea.**

2) Remitir este acuerdo al Juzgado de Primera Instancia nº 6.

**4.- KIROLDEGIKO AURREKO GUNEA ITXI ONDOREN SORTU DEN EGOERA.**

4.- SITUACIÓN TRAS EL CIERRE DEL ESPACIO FRONTAL DEL POLIDEPORTIVO.

***Alkateak honi buruz prestatuko idatzia irakurri du, honako testua izanik:***

*El Alcalde procede a la lectura del escrito preparado al efecto, con el siguiente texto:*

*"KIROLDEGI AURREKO ITXITURA EGIN ONDOREN SORTU DEN EGOERA*

*2009ko Martxoak 24ko Berako udaleko osoko bilkuran Nafarroako Hezkuntza Departamentuarekin hitzarmen bat sinatzea onartu zen. Hitzarmen honetan udalak Toki Ona ikastetxearen instalazioak hobetze asmoz Nafar Gobernuko Hezkuntza Departamentuari eginiko lurren zesioak zehazten dire.*

*Berako udalari, bai Toki Onako APYMAtik nahiz inguruko udaletxetatik egindako presioa eta eskakizunak direla eta hitzarmen hau presaka eta gauza batzuk zehaztu gabe sinatu zen. Gure taldea erabaki horretan abstenitu egin zela ere erran behar dut, ez ginelako ados hitzarmenaren zati batzuekin.*

*Hitzarmen honetan udalak patioa ixteko ardura hartu zuen gastuaren zati ttiki bat Nafar Gobernuko Hezkuntza Sailak bere gain hartzen duelarik.*

*Orain behin itxituraren zati handiena egina dagoenean arazoak sortu dire Toki Onak erabaki duelako eskola orduetatik kanpo patio hau itxia egon behar dela.*

*Herritarren kexak direla eta Udaletxetik harremanetan jarri ginen Toki Onako Zuzendaritzarekin ate honen giltza bat eskatzeko eta orain arte bezala eskola orduetatik kanpo, hau jende guziarentzat idekia egoteko.*

*Toki Onako Zuzendaritzaren erantzuna eskari hau idatziz egiteko izan zen. Gure harriduratik ateri ondoren idatzi bat prestatu eta Toki Onako Zuzendaritzarekin bildu zen Alkatea, erran bezala eskaria idatziz eginez. Bileran Berako Alkateak orain arte bezala patio hau eskola ordutik kanpo idekia egotea eskatu zuen eta hitzarmen bat prestatzen hastea honen erabilera arautzeko. Toki Onako Zuzendaritzak bileran bertan erabakia hartu beharrean idatzia aztertu eta "ikusiko dugu" erantzun zioten Alkateari.*

*Hurrengo egunean idazki bat aurkezten du Toki Onak patio honen erabilera arautzeko baldintzak jarriz, arduradun bat eskatuz etab.*

*Zer aldatu da orain dela hilabete batetik gaur egunera patioa itxia egoteko? Hau ahal da Berako Udaletxeak nahiz bertako herritarrek merezi duten tratua? Udalak baldintzarik jartzen ahal du bere instalazioak erabiltzeko orduan? Hau ahal da gaia eramateko modua?*

*Udalak esfortzu ekonomiko haundia egin du itxitura hau egiten nahiz eta ez zaigun iruditzen heziketarako hagitz egokia denik horrelako kartzela bat egitea.*

*Ordainetan Toki Onak jarrera guziz itxia erakutsi dio Udalari eta tratu eskasa eman.*

*Baldintza hauek sinatu behar badire sinatuko dire baina hemendik salatu nahi dugu Toki Ona institutuaren jarrera."*

***Honen ondotik, honako adierazpen hauek egin dira:***

*Tras ello, se producen las siguientes intervenciones:*

***Helena Santestenban:***
***Irakurri dena ia horrela dela jakinik, ez da erraten Udalak bazekiela eskolako orduetan itxita egon behar zela, beraz, bere ustez Osoko bilkura gaia ekartzea irtenbidea bilatu baino hitz egiten denari kobertura gehiago ematea da.***

*Helena Santesteban:*
*Siendo casi como lo ha leído no se comenta que el Ayuntamiento ya sabía que se iba a cerrar en las horas lectivas por lo que, según su opinión, el traer al Pleno el asunto más que ir a la solución es dar más cobertura a lo que se habla.*

***Institutuak egin duen moduan desegokia dela, ados dago, Udalari eta erabiltzen zutenei ez abisatzean dago hutsa.***
***Udalak erosi eta lagatu zuen Toki Onarako beraz ez du eskumenik horretan, Hezkuntza Departamentuaren aldeko iritziarekin Toki Onak onartu zuen eskolako ordutik kanpo irekia egotea.***

*Está de acuerdo en que la forma en que lo ha hecho el instituto ha sido desacertada, el fallo ha sido el no avisar al Ayuntamiento y a los que lo utilizaban.*
*El Ayuntamiento compró y cedió al Toki Ona por lo que no tiene competencia, con informe favorable del Departamento de Educación Toki Ona acepta que esté abierto fuera de las horas lectivas.*

***Ikastolak giltza izateko, Udalak bezala eta beste batzuk egin duten bezala, hitzarmena sinatu egin behar du.***

*Para que la Ikastola disponga de llave, al igual que el Ayuntamiento y otros grupos, tiene que firmar el convenio.*

***Ez bada proposamena sinatzen lortzen den bakarra da patioko irekiera atzeratzea, besterik ez., baldintzak ezagutzen ziren.***

*Si no se firma la propuesta lo único que se consigue es retrasar la apertura del patio, las condiciones se sabían.*

***Ramon Elgorriaga:***
***Patioarena eta karreterarena gelditu zen Hezkuntza Departamenturekin hitz egin behar zela***

*Ramón Elgorriaga:*
*Lo del patio y lo de la carretera se quedó para hablar con el Departamento de Educación.*

***Mª Sol Taberna, prestatutako idatzia irakurri du, literalki idazten dena:***

*Mª Sol Taberna lee un escrito que trae preparado, el cual se transcribe literalmente:*

*"Hasteko erranen dut nire nahia dela eta uste dut institutuarena ere, patioa eskola orduz kanpo idekita egotea, herritar guztien esku egotea eta horretarako borondate ona dagoela uste dut.*
*Orain arte hala egon da, eta Toki-Onatik ez da inongo trabarik jarri, institutuak hartu du hor gerta zitekeenaren ardura eta erantzukizun guztia. Agian batzuek ez dute onartu nahi eremu hori institutuarena dela, batzuentzat herriarena dela, hori ez dut ukatuko, beti ere Nafarroako Gobernuarena dena herriarena delakoz azken finean, baina kasu honetan ez dagokio udalari horren gainean erabakiak hartzea.*

*Gestioa presaka egin denik ez dut onartzen, izan ere 1998 urtea ezkeroz ibili da institutua hori itxi nahiean eta azkenean lortu bada ez da mesede bat egiteagatik baizik eta udalari ere interesatzen zitzaiolakoz.*

*Aipatu nahi dut ere ezagutzen ditudan ikastetxe guztiek modu bateko edo bertzeko itxiera dutela, herri ttikietan ere, eta toki guztietan normala ikusten dena hemen kartzelarekin parekatzen da. Gainera herri honetan hainbat ikastetxe daude, batzuk herriaren lurretan eta bertze batzuk ez, eta DENAK ITXITA daude, baina hemen epaitzen dena eta hautsak harrotu dituen bakarra juxtuki institutuarena da. Horren inguruan ere hausnarketa bat beharko genuke. Erico egoera bere osotasunean aztertu beharko genuke.*

*Toki-Onaren jarrera txarra aditu dut han eta hemen, aitortzen ahal dut okerren bat egin dela, akaso itxi baino lehen udalarekin bildu beharra zegoen, baina egia da hau kurtsoa hasi baino lehenago ixtea nahi zela eta hor ibili gara, zati bat falta zela, gero ataka, oraindik ere ez dago guztiz itxita, bitartean klaseak hasita eta hor zentratu dira institutuaren indarra eta kezkak.*
*Behin itxi ezkeroz telefono solas batzuk egon dira, eta hor akaso nahasi da dena, institututik baldintzak batzuk, Alkatearen exijentziak bertzetik.*

*Azkenean, azaroaren 6an, duela bi aste jadanik institututik etorri zen idatzia, bertan konpromezu batzuk eskatzen ziren, behin behineko soluzioa planteatzen zen, honekin patioa itxiko zen; gero denen artean hitzarmen bat prestatzeko eta bi aldeek onartzeko. Forma txarretan oinarritu da alkatea orri hori ez sinatzeko, nahiago izan du gaia plenora ekarri, hemen eztabaida bistu eta gainera institutuaren salaketa planteatzen du. Horixe ba ez zait iruditzen moldatzeko bidea, sua indartu, zergatik? ez da inongo proposamenik egiten, salaketa baizik. Bertze asmo batzuk ikusten ditut nik, desprestigioa erraterako,.*

*Bukatzeko salaketa gainditzeko proposatzen dut:*

1. *Institututik bidalitako konpromezu orria sinatzea, bertan erraten den bezala behin behineko soluzioa da.*
2. *Bilera bat adostu, udala eta institutuaren artean, nahi bada Nafarroako Gobernua ere deitzen al da. Bertan bi aldeek planteatuko dute beren nahiak, asmoak, betebeharrak, konpromezuak,.. eta hortik aterako zen behin betirako hitzarmena adostu, prestatu eta sinatu.*

***Jon Abril:***
***Memoria egin du, aurreko legealdian bera eta Helena eskolen arteko giroa hobetu nahian hasi ziren bilerak egiten, gero Helenak jarraitu zuen eta lortu zen Ikastolako legalizazioa. Ondotik, patioa ixteko eskaera zela eta, Nafar Gobernuko Ondare Zerbitzuarekin bilerak egin ziren eta lortu da lurren erregularizazioa, ez da izanen akordioa guztiz ona baina argitu dira gauzak.***
***Orain falta da Hezkuntza Departamentuarekin erabilera arautzeko negoziatzea.***
***Ez sua piztu berriro, beraz, Alkateak irakurritako idatzia erretiratzea eta konpromisoa epe motzean negoziatzea eskatu du, bitartean sinatu institutuak bidalitako idatzia patioa irekia egoteko.***

*Jon Abril:*
*Hace memoria, en la anterior legislatura él y Helena con la intención de mejorar el ambiente entre los centros escolares empezaron a hacer reuniones, luego siguió Helena y se consiguió la legalización de la Ikastola. Posteriormente, por la solicitud de cierre del patio se hicieron reuniones con el Servicio de Patrimonio y se consiguió la regularización de los terrenos, no será el mejor acuerdo pero se han aclarado las cosas.*
*Ahora falta negociar con el Departamento de Educación la regulación del uso.*
*No hay que encender el fuego de nuevo, por tanto solicita retirar el escrito leído por el Alcalde y el compromiso de negociar en plazo corto, mientras firmar el escrito remitido por el instituto para que se abra el patio.*

***Amaya Tellechea:***

*Amaya Tellechea:*

***Hitzarmena presaka onartu zen eta Ricardo Baroja ondoko kaleari buruzkoa argitu gabe gelditu zen.***

*El convenio se firmó deprisa y quedó sin aclarar lo de la calle lindante con Ricardo Baroja.*

***Segitzen du eztabaida kale horri buruz, institutuak izan dituen formei buru eta idatzi hori sinatzen ez den bitartean patioa itxita egonen dela edo irekitzen ahal dela sinatu gabe.***

*Sigue la discusión sobre la calle, las formas que ha tenido el instituto y que mientras no se firma el escrito el patio estará cerrado o si hay que abrirlo sin necesidad de la firma.*

***21:10 orduetan bilera gelditu da aretoan dagoen jendeak eta zinegotziek hitz egiteko, berriro, 21:35 orduetan bilera hasi da.***

*Siendo las 21:10 horas se suspende la sesión para intervenciones del público presente y los concejales, y se inicia nuevamente a las 21:35 horas.*

***Alkateak dio bera patioa irekita egotearen alde dela hitzarmena egin arte, bitartean berarengatik ez duela sinatuko idatzia.***

*El Alcalde dice que está a favor de que el patio esté abierto hasta que se firme el convenio, mientras él no está por firmar el escrito.*

***Azkenean, idatzi hori sinatu behar den ala ez bozkatzera pasatu da eta hauxe izan da emaitza:***

*Finalmente, se pasa a votar si se debe firmar el escrito o no, con el siguiente resultado:*

***Sinatzearen alde: 7 boto (3 EA, 2 EAJ/PNV eta 2 Aralar)***
***Sinatzearen aurka: 4 boto, (Alkateak eta beste hiru zinegotziak.***

*A favor de la firma: 7 votos (3 EA, 2 EAJ/PNV y 2 Aralar).*
*En contra de la firma: 4 votos (el Alcalde y los otros tres concejales)*

***Hori dela eta, honako erabakia hartu dute:***

*Así pues, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Toki Ona Institutuak Udalari bidalitako idatzia kiroldegiko aurreko gunea eskolako ordutik kanpo irekia egoteko sinatzea.**

Firmar el escrito remitido por el Instituto Toki Ona al Ayuntamiento para la apertura del espacio frente al polideportivo fuera del horario lectivo.

**5.- NAFARROAKO AUZITEGI ADMINISTRATIBOAREN EBAZPENEN BERRI:**
**- ILEKUETAKO BIDEA.**
**- ZALAINGO BIDEA TRUKATZEA.**

5.- RESOLUCIONES DEL TRIBUNAL ADMINISTRATIVO DE NAVARRA:
- CAMINO DE ILEKUETA.
- PERMUTA CAMINO DE ZALAIN.

**Nafarroako Auzitegi Administratiboaren hurrengo Ebazpenen jakinen gainean gelditu dira:**

Quedan enterados de las siguientes Resoluciones del Tribunal Administrativo de Navarra:

**- 7382 Ebazpena, Ilekuetako bide publikoari buruzko ikerketa espedientearen aurka jarritako 08-7219 Altxada Errekurtsoarena,**

- Resolución 7382 del Recurso de Alzada interpuesto contra el expediente de investigación sobre el camino público de Ilekueta.

**- 7506 Ebazpena, Zalaingo bide publikoa trukatzeko proposamena deuseztatzen duen erabakiaren aurka jarritako 09-0895.**

- Resolución 7506 del Recurso de Alzada interpuesto contra el acuerdo de anulación de la propuesta de permuta del camino público de Zalain.

**6.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

6.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

**Honako bando eta Alkatearen ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

**1) Bandoak: B25/2009tik B28/2009ra.**

**2) Ebazpenak: 2009ko urriaren 13ko 213. ebazpenetik 2009ko azaroaren 12ko 243.era arte.**

1) Bandos: del B25/2009 al B28/2009.

2) Resoluciones: De la resolución nº 213, de 13 de octubre de 2009 a la nº 243, de 12 de noviembre de 2009.

**Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo absolutua betea izanik, honako gai hauek tratatu dira:**

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se tratan los siguientes asuntos:

**7.- UDALEN FINANTZAKETARI BURUZKO MOZIOA: BERAKO EA, EAJ/PNV ETA ARALAR.**

7.- MOCIÓN SOBRE FINANCIACIÓN DE LOS AYUNTAMIENTOS: EA, EAJ/PNV Y ARALAR DE BERA

***Mª Sol Tabernak mozioa irakurri du eta denak ados agertu dira. Hala ere, Alkateak zera gehitzea aipatu du:***
***Toki Entitateak finantzatzeko modua aldatu behar dela Udalek herritarrak behar diren zerbitzuak ezin bete direlako.***
***Hau gehitzeko denak ados, ere agertu dira. Beraz, aho batez, mozioa aipatu den gehitzearekin onartu da:***

*Mª Sol Taberna lee la moción y todos/as muestran su conformidad. No obstante, el Alcalde manifiesta que le añadiría que se debe modificar el modo de financiación de las Entidades Locales porque no pueden cumplir con los servicios que necesita la ciudadanía.*
*De nuevo se muestra la conformidad por parte de los y las presente. De este modo, por unanimidad, se aprueba la moción con el añadido expresado:*

**Berako EA, EAJ eta ARALAR udal taldeek honako mozio hau aurkezten du, udal honen osoko bilkuran eztabaida eta onar dadin.**

Une hauetan eztabaidatzen ari dira Madrilen, eta laster bozkatuko dira, Estatuko aurrekontu nagusiak eta zerga neurriak.

Nafarroa Baik oposizio argia agertu du Estatuko Gobernuaren saiakeraren aurrean; horrek zeharkako zergak igo nahi ditu 2010. urterako zerga neurrietan, esaterako eta nagusiki, BEZa. Zerga hori Nafarroan aplikatu beharrekoa denez, erabateko autonomia eta arautzeko eskumena aitortua ez duelako, Nafarroako Gobernuak horren ondorioz aurreikusten duen diru-sarreren igoera 110 milioi eurokoa da. Diru-sarreren igoera hori bideratu behar da ongizatea eta zerbitzu publikoak bermatzera, eta banatuta egon beharko du zerbitzu horiek ematen dituzten administrazioen artean.

Udalek izugarri murriztu dituzte euren diru-sarrerak, krisi ekonomikoaren eta ekoizpen zein merkataritza jardueraren gainbehera dela-eta. Diru-sarrera horiek dira, hain zuzen ere, tokiko erakundeei beti gutxieneko egonkortasun bat eman dietenak, horiek jarrai zezaten herritarrei behar-beharrezko zerbitzu asko ematen.

Modu berean, BEZa igotzea –ezkerrak krisiari buruz duen ikuspegi eta erantzunaren aurkako zerga neurria da hori– gure udalerrietako herritar guzti-guztiek jasan eta ordaindu beharko dute.

Horregatik guztiarengatik, EA, EAJ eta ARALAR udal taldeek honako **mozio** hau aurkezten du:

**.- Udalak Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die, zeharkako zergen igotzearen ondorioz diru-sarrerak handitzen badira, diru-sarreren igoera horren %40 bideratzeko toki entitateei egin beharreko transferentzia arruntak handitzera.**

**.- Transferentzia arrunt horien handitzea udalek dituzten diru-sarreren gainbehera apaltzera bideratu beharko da, eta honako helburu honi lotuta egon beharko du: krisi ekonomikoaren ondorioz egoera sozial zailei erantzuteko eman ohi diren oinarrizko zerbitzu publikoek beren horretan jarraitzea bermatzea.**

**.- Toki Entitateak finantzatzeko modua aldatu behar dela eskatzea Udalak herritarrak behar diren zerbitzuak ezin bete direlako.**

**.- Bidaltzea akordio hau Nafarroako udalerriei, Nafarroako Gobernuari (Toki Administrazioa) eta prentsari.**

Eranskina:
.- Azkenean BEZaren ekarpena 110 milioi €-koa bada, 44 milioi lirateke kopuru horren %40. Une hauetan, Nafarroak 620.377 biztanle ditu.
Hartara, biztanle bakoitzari 71 € inguru dagozkio.

**8.- MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK ZAINTZEKO ZERBITZUEN INGURUKO ENPLEGU TAILERRARI (2010) BURUZKO PROPOSAMENA: CE-**

8.- PROPUESTA SOBRE TALLER DE EMPLEO DE SERVICIOS DE ATENICÓN A PERSONAS DEPENDIENTES 2010: CEDERNA-GARALUR.

**DERNA- GARALUR.**

*Aho batez, ondoko erabakia hartu dute:*

*Por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, CEDERNA-GARALUR ELKARTEAK 2010. urterako Mendekotasuna duten Pertsonak Zaintzeko Zerbitzuen Enplegu-Tailerra sustatzeko proposamena.**

Vista propuesta de la ASOCIACIÓN CEDERNA-GARALUR para promover un taller de empleo de Servicios de Atención a Personas Dependientes para el año 2010.

**ERABAKI DA:**

SE ACUERDA:

**1) 2010. urtean, Mendekotasuna duten Pertsonak Zaintzeko Zerbitzuan Enplegu-Tailerrean parte hartzea.**

1) Participar en el Taller de Empleo de Servicios de Atención a Personas Dependientes en el año 2010.

**2) Erabaki hau Cederna-Garalur Elkarteari bidaltzea.**

2) Remitir este acuerdo a la Asociación Cederna-Garalur.

**9.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

**Ez dira burutu.**

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:50etan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 21:50 horas.

**O.E. ALKATEA/** V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

**IDAZKARIA/** LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta